

Kasu, Fraga datorrela!

Euzkadi [Caracas], 1983-03.

Fraga baino Zanpantzar handi eta arriskugarriagoak ez dugu gure aurrean.

Ihauterietako personaia da, benetan. Eskuin zehar et Beltzenetik dator: gogora Francopcan egindakoak; garai hartan esandakoak ("nire gorpuaren gainetik iragan beharko dute ikurriña Espainian ofizialki onartua izan baino lehen"), eta oraindik gure eskubide soilen aurka erabilgarriak diren eta gordeak dituen arma zuri eta suarmak.

Inola jantzita ikusten badut, *armaduraz* da; trogloditek erabiltzen zuten taket tantaiaren ordeko bezala Erdi Aroan lortu zen aurrerapen baldarra, baina larrugorrian zebiltzen kontrarioak arriskurik gabe zapaltzeko egokiena.

Hor geratu da Fraga politikan.

Askok uste dute Britainia Haundian zehar Enbaxadore bezala jantzita ibili delako, gizon hau aldatu dela. Hizkuntzarik ez du ikasi (gazteleraz era hitzak nola ahozkatu ez daki oraindik, eta, pentsa!) nola jakingo du ba *Habeas Corpus*-ek zer esan nahi duen!?

Eta orain, sozialista berak eman diote titulo ofiziala: Oposizioko Buruzagia.

Eskadunok, eta sozialisten erruz, erru handiz!, oposizioan jarri bagara, zanpantzar hau da gure buru!

Sozialistak ari dira politika honekin gobernu demokratikoa arriskuan jartzen: Estatua bi puzketan zatikatu nahi dute, hau da erabili zezaketen biderik argiena eta pizkorrena. Eta gure ustez, zatiketa radikal honen orde, aukera demokratikoak egiteko ñabardura politikoak gordetzea osasuntsuagoa izango litzateke demokraziarentzat, eta azkenik, noski, sozialistentzat ere.

Ez baita zuri-gorri, zero-infernu, Jainko-deabru, joko hontan Fragari irabaziko dionik:

Bat, batez ere herri hontako eskolapen eta kulturaren egoera aldatu ez delako oraindik; *bi*, setako joko hontan hemen ezin duelako arrazoi bideak irabazi, fanatiko amorratuak baino; *hiru*, borroka-lekua dagoeneko filosofi hontaz jantzitako armagizonek bere mende daukatelako, eta *lau*, honelako sinplifikazio batetan diruak beti errazenera, seguruena, berera, itsu-itsu, jartzen delako.

Ihauteri zalapartatsu hontan, Fraga da nagusi.

Hemen zaila da inboluzio lotsagabe bat; baina zanpantzar hori aukera honen zai serbitzari dutela, indarrak laster egingo du munduak zehar ikusten ari garen mirari demokratikoetako bat.

Kasu!, Fraga datorrela!